



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

2016KO URRIAREN 27KO BILKURAKO AKTA

Organoa: Orendaingo Udaleko Plenoa
Tokia: Orendaingo udaleko Areto Nagusia
Deialdia: Lehenengoa
Hasiera data: 19:00etan
Amaiera data: 21:00tan

Bertaratuak:

Gorka Egia Arregi. Alkatea
Miguel Angel Arsuaga Azurmendi. Zinegotzia
Ibon Gonzalez Galarraga
Txaro Arrona Erdozia

Idazkaria : Nekane Lopetegi Etxeberria

GAI ZERRENDA

- 1.- 2016eko ekainaren 16ko bilkurako akta onartzea hala balegokio.
- 2.-2017 urterako indarrean izango diren zerga eta tasen erabakia onartzea.
- 3.-Kale baserriaren eraberritze eta bertan bost bizitza habilitatzeko lanen lizitazioarautuko duen baldintza plegua administratibo teknikoari onarpena ematea, eta bide batez jendaurrean jartzea onartzea.
- 4.-Udaleko zuntz optikoa eta Wifi sarea kudeatzeko hitzarmena sinatzea onartzea eta horetarako alkateari ahalmena ematea.
- 5.-Gizarte zerbitzu eta kultur arduradunek eskualdean aurkeztu duten kexa idatziari babesa ematea eta Aldundiari aurkeztea.
- 6.-Kale eremuko 7 bizitzaren habitabilitate baimena onartzea.
- 7.-Eraikin berriko zerbitzuen antolakuntza lanen esleipena egitea, aurkeztu diren proposamenak aztertirik.
- 8.-Jaurilaritza eta udalaren arteko hitzarmena, elkarren arteko datuen erabilera errazteko, sinatzea eta horretarako alkatea baimentzea.
- 9.-Orendaingo mapa digitala lanak amaitu direla eta faktura ordaintzea onartzea.
- 10.-Orendaingo web orrialdearen lanak amaitu direla eta faktura ordaintzea.
- 11.- Alkateak azken bileretik hona emandako ebazpenen berri ematea:
 - 2016-08: Ikaztegietari suak uztea
 - 2016-09 : Kale bizitzen hedapena gastua
 - 2016-10: Baso eskolako oinarrizko proiektua eskatzea
 - 2016-11: M.A. A. A lizentzia onartzea

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

- 2016-12: Ministeritzaren errekerimendua erantzutea
- 2016-13: Gazta elkarteari lagutzta onartzea
- 2016-14: M.J ren lizentzi eskaera
- 2016-15: Largarate txikiko lizentzia
- 2016-16: A. eta J. Z lizentzi eskaera
- 2016-17: Zuntz optikoaren esleipen birmoldaketa
- 12.-2016/01 kreditu aldaketa onartzea
- 13.-Galderak eta eskaerak.

1.- 2016EKO EKAINAREN 16KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.

Alkateak aginduta, 2016-06-16ko bilkurako akta mahairatu dira onarpena emateko. Bertaratuen aldetik inolako zuzenketa edo aldaketa proposamenik agertu ez denez dagoen bezala ontzat eman da.

2.-2017 URTERAKO INDARREAN IZANGO DIREN ZERGA ETA TASEN ERABAKIA ONARTZEA.

Idazkariak, 2017 artejo zerga eta tasak gain begiratzeko laburpen bat aurkeztu du eta banan banan ikusi ostean, honako erabakiak hartu dira.

UDAL ORDENANTZAK 2017

ZERGA:

1.-Hiri ondasun higiezin zerga.

Gutxienekoabalio katastralaren % 0,04
Gehienekoa balio katastralaren % 4

Orendaingo kasuan%0,17.

Adibidez, balioa katastrala 100.000 € bada, kuota, 170 € da.

2017 urterako balioa katastralak igo egin dira, eta tipoa berdina uztea geratu ginen.

HOBARIAK: .- Familia ugarien kasuankuotaren %90 arte
.-Babes publikoko bizitzak..... kuotaren %50 arte
.-Eguzki energia probetxamendua....kuotaren % 50 arte
.-Bizigune programako etxea.....kuotaren %50 arte



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Orendaingo kasuan , familia ugarien hobaria aplikatzen da .

ERABAKIA: .-Ondasun higiezinako tipoa berdina uztea, balio katastrala igo delako.

.-Familia ugarien hobaria 2016 urtean bezala aplikatzea.

.-Eguzki eergiaren probetxamendua egiteagatik, kutoraen %50 eko hobaria aplikatzea 2017 urtean.

2.-Landa ondasun higiezin zerga.

Gutxienekoabalio katastralaren %0,3

Gehienekoa balio katastralaren % 1,1

Orendaingo kasuan % 0,69.

Adibidez , balio katastrala 10.000 € bada, kuota 69,00 da.

ERABAKIA: Urtero bezala P.I.K igotzea. Beraz, %3,6eko igoera egon denez, tipoa %0,714 izango da 2017 urterako.

3.-Trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga.

Foru arauak ezarritako gutxienekoei %3 arteko igoera aplika daiteke.

Orendaingo kasuan, gutxieneko prezioei 1,20 ezarria dago.

HOBARIAK:

- .- kuotaren %75 arte kontsumizten den karbuarantearen arabera
- .- kuotaren %75 arte ingurunean duen eraginaren arabera
- .-kuotaren %100 arte ibilgailu historikoak direna, 25 baino gehiago.

ERABAKIA : %1,24 aplikatzea

Ibilgailuaren potentzia eta mota

Euro

a) Turismoak:

9 zaldi fiskaletik beherakoak	22,80
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak ..	45,60
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	76,01
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	106,41

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	136,82
20 zaldi fiskaletik gorakoak	167,22
<i>b) Autobusak:</i>	
21 plaza baino gutxiagokoak	103,29
21etik 50 plazara bitartekoak	147,11
50 plaza baino gehiagokoak	183,89
<i>c) Kamioiak:</i>	
1.000 kg karga baliagarritik beherako kamioia	52,42
1.000tik 2.999 kgra bitarteko karga erabilgarria dutenak ..	103,29
2.999tik 9.999 kgra bitarteko karga erabilgarria dutenak ..	147,11
9.999tik gorako karga erabilgarria dutenak	183,89
<i>d) Traktoreak:</i>	
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	21,91
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	34,43
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	103,29
<i>e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandakoatoiak eta erdiatoiak:</i>	
1.000 baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak...21,91	
1.000tik 2.999 kgra bitarteko karga erabilgarria dutenak ...	34,43
2.999 kgtik gorako karga erabilgarria dutenak .	103,29
<i>f) Bestelako ibilgailuak</i>	
Ziklomotoreak	5,59
125 cc.ra bitarteko motozikletak	5,59
125 cc.tik 250 cc.ra bitarteko motozikletak	9,57
250 cc.tik 500 cc.ra bitarteko motozikletak	19,15
500 cc.tik 1.000 cc.ra bitarteko motozikletak	38,31
1.000 cc.tik gorako motozikletak	75,61

4.-Eraikuntza , instalazio eta obren gaineko zerga

Foru arauak ezartzen duen gehinezko tipoa , aurrekontuaren %5 a da.
Orendaingo kasuan honela dago:

Tipo orokorra: %4a

Hobariak ondoren aipatzen den kasoetan aplikatuko dira:

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

HIRIGUNEKO ESKAERETAN:

- Eraikuntza berria: aurrekontuaren %4a
- Berrikuntza lanetan:
 - Orendaingo udalerrian, eskaera aurkezten denetik kontatuta, 10 urte baino gehiago erroldatua badago eskatzailea, aurrekontuaren %2a ordainduko du.
 - Aldiz, eskatzailea Orendaingo udalerrian 10 urte baino gutxiago erroldatua badago, %4a ordainduko du.

LUR EZ URBANIZAGARRIKO ESKAERETAN

- Eraikuntza berria denean:
 - Eskatzaileak 10 urte baino gehiago erroldatua badago eskaera aurkezten duenetik kontatuta, aurrekontuaren %1a ordainduko du.
 - Eskatzaileak 10 urte baino gutxiago erroldatua badago aurrekontuaren %4a ordainduko du.
- Berrikuntza lanetan:
 - 10 urte erroldatua egotearen baldintza betetzen dutenek, aurrekontuaren %1a ordainduko du.
 - 10 urte baino gutxiago dituenak aurrekontuaren %2a ordainduko du.

Eraikuntza berria esaten denean, lehen ezer ez dagoen lekuan eraikitzea esan nahi du.

Berrikuntza lana esaten denean, baldintza hauek bete behar dira:

- Lehen dagoen eraikinean berrikuntza egitea. Hau da, handitzea, altxatzea, zabaltzea, edo zoru gehiago okupatzea berrikuntza ez da izango berria egitea baizik.

Lehengo eraikuntzan, lehen zegoen bezala erabilera berdina izatea, hau da familia bateko bizitza izaten jarraitzea. Eraikuntzan bizitza bat baino gehiago egitea edo erabilera aldatzea berrikuntza ordez eraikuntza berria kontsideratuko da.

ERABAKIA: Berdin jarraitzea

5.-Hirilurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga

Hobaria, kuotaren %95arte aplika daiteke eskualdaketa heriotza dela eta zuzeneko sendien artean egiten bada (guraso, ezkontide, seme-ala)

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

ERABAKIA : Berdin jarraitzea

TASAK:

1.- Zaborren bilketa

- Zerbitzu ez domestikoa:

Tabernak	112€/urtean
Elkartek	112€/urtean

- Zerbitzu domestikoa:

Norberak kudeatua	65€/urtean
Auzo Konpostagailuan	81,25€/ urtean
Auzo konpostagailuaren kudeatzaile izendatzen denak	65€/urtean

2016 urtean jasoko dena :

104 errezibo x 32,50 (2016-01) x2	6760,00€
13 errezibo X 81,25	1056,25€
2 errezibo x 56 ,00(2016-01) x 2	224,00€
Guztira	8.040,25 €

Zerbitzuaren kostua : 5.400,00 euro inguru (450,00 € bataz beste X 12).

ERABAKIA.

Zerbitzu honetan kontutan hartu behar da udalerrian dagoen bilketa antolaketa dela eta udaleko langileak zerbitzu honetan lan jardun handia duela, eta ere kostua ere gogoan izan behar dela.

Alkateak jakitera ematen du, hondakinen inguruko irizpideak eta proiektuak ikusita, hondakin organikoak %80 eko igoera izango duela tratamendu gastuan eta errefusak %20 eko igoera. Halere, oraindik Tolosaldeko mankomunitatetik ez da zehaztapenik jaso.

Horregatik, 2017 urterako orain arte dagoen bezala uztea erabaki da.

- Zerbitzu ez domestikoa:

Tabernak	112€/urtean
Elkartek	112€/urtean

- Zerbitzu domestikoa:

Norberak kudeatua	65€/urtean
Auzo Konpostagailuan	81,25€/ urtean
Auzo konpostagailuaren kudeatzaile izendatzen denak	65€/urtean

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Auzo konpostagailua garestaiago izatearen arrazoia, alde batetik bere terreno propioerik ez dutela konpostagailua beraiek egiteko baina bestetik, beraiek auzo konpostagailura eramane eta jarraipneik egin beharrik ez dutela ikusi da.

7.-Hilerriko zerbitzua:

Gorpu dagoenean, hobitik ateratzea 70,00 €

Errautsak direnean, hobitik ateratzea..... 10,00 €

Gorpua denean, hobian sartzea.....40,00 €

Errautsa denenean, hobian sartzea 10,00 €

Nitxoaren kontzesioa 10 urterako300,51 €

ERABAKIA: 2017 urtean, 2016 urtean bezala jarraitzea.

8.-Udal jabari publikoa okupatzeagatiko prezio publikoa:

Udal jabari publiko okupatzeagatiko prezio publikoa: % 1,5

ERABAKIA: 2017 urtean, 2016 urtean bezala jarraitzea.

3.-KALE BASERRIAREN ERABERRITZE ETA BERTAN BOST BIZITZA HABILITATZEKO LANEN LIZITAZIOAARAUTUKO DUEN BALDINTZA PLEGUA ADMINISTRATIBO TEKNIKOARI ONARPENA EMATEA , ETA BIDE BATEZ JENDAURREAN JARTZEA ONARTZEA .

Kale baserriaren eraberritze eta bertan bost bizitza egokitzeko, aurrez Udalak lehiaketa bat egin nahi du, lan hauen balioa zenbatekoa den jakiteko. Horregatik, deialdi publikoa egiten du eta deialdia arautuko duen baldintza plegua aurkezten da onarpena emateko. Ondoren hitzez hitz agertzen da:

**ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA PROZEDURA IREKI BIDEZ
LEHIAKETA ARAUTZEKO, ETA KALE BASERRIAREN ERABERRITZE ETA BOST
BIZITZA EGOKITZE LANAK KONTRATAZEKO HELBURUA BETETZEKO,ETA
ONDOREN , ESLEITUAK IZANGO DIRENEI HELARAZTEKO, ETA LEHIAKETAREN
BIGARREN FASEARI JARRAIPENA EMAN ETA AZKENIK, OBRAK EGIKARITZEKO**

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

,KONTRATISTA HAUTATUA ETA BIZITZEN JABE IZANGO DIREN ESLEITUEN ARTEAN ,KONTRATU AGIRIAN AMAITZEKO

I. LEHIAKETAREN EDUKIA

1. LEHIAKETAREN XEDEA.- Lehiaketaren xede orokorra, lehiaketa prozedura ireki bati hasera ematea da, bere helburu zehatza Kale baserria eraberritzea eta bertan bost bizitza eta bere ingurunea egokitzea da, udalean dagoen oinarrizko proiektuan ezarritako prezioan eta hau gehienez ere %15ean igo daitekeelarik, berau izanik onartuko den gehienezko prezioa ,ondorengo prozeduraren arabera:

Lehen fasea:

Prozedura irekia hiru kontratista hautatzeko, bere helburua ondorengo izanik :

.-Lehiaketa prozesu baten ondorioz jaso den emaitza, hau da, oinarrizko proiektuaren azterketa sakona egitea, kale baserriaren eraberritze eta bertan bost bizitza egokitzeko.

.-Oinarrizko proiektuan jasotzen diren obra unitatearen prezioak proposatzea.

.-Eraikuntzaren balio hobetzeko egokiak izan daitezkeen aldaketak proposatzea , proiektuan agertzen diren unitate prezioak aldatuaz, edo, beste ataletako aldaketak proposatuaz.

Lehen fasearen emaitzak ondoren baldintzak bete behar ditu, prozedurak aurrera jarraitzeko:

1.-Lehen fasean jasotzen diren proposamena ekonomikoak, oinarrizko proiektuari dagokionez, lehiaketa honetako xedean ezartzen prezioan exekutatzeko bermea izatea. Baldintza ekonomikoa bete ostean, udalak exekuzio proiektua erredaktatuko du, eta bertan lehen fasean jasotako aldaketak eta ekarpenak kontutan hartuko dira.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Lehen fasea, hiru proposamenen hautaketarekin amaituko da eta proposamen bakoitzari 1000 eurotako saria emango zaio, beza barne.

Bigarren fasea:

Udalak, prozedura ireki baten bidez, hautatutako orubearen esleituei, ondorengo dokumentazioa eskuratuko die, bigarren faseari jarraipena emateko, udala kanpo geratuko delarik:

.-Lehen fasetik hautatu diren hiru proposamen ekonomiko egokienak.

.-Exekuzio proiektua

.-Udala eta esleituen arteko trukaketa eskritura publikoa, non udalak kale baserriaren orubea eta eskritura eskuratuko die, eta udalak, bertan egokituko den bizitza bat trukean jasoko du.

Hirugarren fasea:

Esleituak, kontratista hautatuko dute eta beraien artean sinatuko duten hitzarmeneko baldintzak ere ezarriko dituzte.

2. LEHIAKETAREN AURREKONTUA

Lehiaketaren aurrekontua HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EURO (350.000,0€) INGURU IZAN BEHAR DU, bez kanpo, onartuko den gehienezko zenbatekoa, aurrekontuaren %15 izanik.

3.- NOLA ORDAINDU

Obra burutuak aldizka ordainduko dira, obra zuzendaritzak egiaztagiria egindakoan, banku transferentzi bidez sinatuko den kontratu pribatuan jasoko delarik.

4.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Exekuzio proiektuan jasoko diren unitate prezioak, lehiaketaren ondorengo emaitzak izango dira eta berauek errespetatu behar dira.

5.- BERMEAK

Fase honetan ez da bermerik ezartzen .Kontratu pribatuan bermeak ezarriko dira.

6.- KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Lehiaketa honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienez arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

7.-KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Obrak burutzen diren bitartean, kontratistaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

8.- KONTRATUA ALDATZEA

Aldaketak, horrela badagokio, bi aldeen arteko kontratuan zehaztuko dira.

9.- OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak amaitu eta hilabeteko epean obrak jasotze akta egingo da, eta hau ere bi alderdien arteko kontratuan zehaztu eta jasoko da.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

10.- KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

Bi aldeen artean sinatutako kontratua jasoko dira.

11.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOTIAK

Bi aldeen artean sinatutako kontratua jasoko dira.

12.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK

Administrazioari dagokio, lehiaketa interpretatzea, kontratua sor daitezkeen zalantza ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.-LEHEN FASEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

13.-XEDEA .- Kale baserria eraberritze eta bertan bost bizitza egokitzeari dagokion oinarrizko proiektuari proposamen ekonomikoak aurkeztea.

Prozedura irekia hiru kontratista hautatzeko, bere helburua ondorengoa izanik:

.-Lehiaketa prozesu baten ondorioz jaso den emaitza, hau da, oinarrizko proiektuaren azterketa sakona egitea, kale baserriaren eraberritze eta bertan bost bizitza egokitzeko.

.-Oinarrizko proiektuan jasotzen diren obra unitatearen prezioak proposatzea.

.-Eraikuntzaren balio hobetzeko egokiak izan daitezkeen aldaketak proposatzea, proiektuan agertzen diren unitate prezioak aldatuaz, edo, beste ataletako aldaketak proposatuaz.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Lehen fasearen emaitzak ondoren baldintzak bete behar ditu, prozedurak aurrera jarraitzeko:

1.-Lehen fasean jasotzen diren proposamena ekonomikoak, oinarrizko proiektuari dagokionez, lehiaketa honetako xedean ezartzen prezioan exekutatzeko bermea izatea. Baldintza ekonomikoa bete ostean, udalak exekuzio proiektua erredaktatuko du, eta bertan lehen fasean jasotako aldaketak eta ekarpenak kontutan hartuko dira.

14.-LEHEN FASEAREN EPEA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatuta HIRUROGEI EGUN NATURALEKO epearen barruan proposamenak aurkeztu behar dira.

15.-KONPENTSATZIOA: Lehen fasean egindako lanaren ordaina lehenengo hiru hautatuei ordainduko zaie, bakoitzari 1000 euro, beza barne.

III.- LEHEN FASEA KONTRATATZEKO PROZEDURA

16.- ESLEIPENAREN PROZEDURA

Lehiaketa honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da.

Lehiaketa baloratzeko oinarria izango duten balorazio irizpideak eta ondoren kontratua egiteko erabiliko direnak, ondorengoak izango dira:

Lehen fasean:

1.-Alderdi ekonomikoa . Oinarrizko proiektuaren aurrekontuarengana gehiena inguratzen denak , gehienez 25 puntuko balioa izango du. Eta, beste proposamenak lehen hobesten den proposamen ekonomikoaren proportzioan baloratuko dira , hau da 350.000 euroetara,beza kanpo, gehien inguratzen denak 25 puntu. Onartuko diren proposamenak, ezingo dira inoiz ezarritako aurrekontuaren %15eko igoeratik gora pasa. Eta horrelako kasuan baztertuak geratuko dira.

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

2.-Proiektuaren azterketa zehatza, bertan sakondu behar diren alderdiak azaldu eta irtenbidea bilatzeko proposamenak egin, eta obra unitate bakoitzari dagokion balioa jartzea 20 puntuekin baloratuko da.

3.-Eraikinaren alderdi ekonomikoa, energiaren hobekuntza, mantenuaren hobekuntza e.a., eta materiala eta beste alderdietako hobekuntzen proposamenak 20 punturekin baloratuko dira.

17.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria:udaleko alkatea
- Batzordekideak:hirigintzako zinegotzia
- Udaleko arkitektoa
- Proiektuaren sinatzailea
- Mahaiko idazkaria:udaleko idazkaria

18.-KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

19.-PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Orendaingo udalean, Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzen denetik kontatuta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Horiek Orendaingo udalean idatzita aurkeztuko dira, lehen adierazitako lekuan.

Proposamenak ele bietan edo euskara hutsean bakarrik aurkeztu daitezke.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta honako atari informatiko edo webgunean ere eskuratu ahal izango da: www.orendain.eus

Gune berean, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria ere eskuratu ahal izango da.

Lizitatuzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLTBaren 158.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde aurretik lan tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epe amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lizitatuzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

20.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzailleek hiru kartazal (A, eta B aurkeztuko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: “ORENDAINGO UDALAK PROZEDURA IREKI BIDEZ LUZATU DUEN LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

“A” kartazalaren azpiztitulua hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”. Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea aurkeztuko da eta erakunde honek askietsiko du kartazal horretan aurkeztutako agirien sailkapen-prozesuan.

b) Lizitzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

Bestelako enpresari atzerritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion Estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurralde-eremuko Kontsul Bulegoaren txostenaren bidez frogatuko da.

c) Lizitatzailleak erantzukizunpeko berriazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berriaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergen, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lizitatzailleak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Derrigorrezkoa da gutxienez euskaraz aurkeztea , eta horretarako ereduak eskuratuko dira.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

“B” kartazalaren azpitolua hau izango da: "BALORAZIO IRIZPIDEAK ". Bertan, agiri honetan jasotako irizpideen arabera balioak emango dira , hau da:

Alderdi ekonomikoa

Proiektuaren azterketa zehatza, azpimarratu behar diren atalak azalduaz.

Eraikina, bere inguruan, materialetan, eta proiektuaren beste ataletan egin daitezkeen aldaketak proposatzea, hobekuntza ekonomikoa, energetikoa eta mantenimendukoa lortu ahal izateko.

21.-AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako lan hauek burutuko dira:

1. "A" KARTAZALA IREKI ETA BERTAN DAUDEN AGIRIAK PROZESATZEA

Mahaiak "A" kartazalean dauden agiriak sailkatuko ditu. Ildo horretan, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dizkiote, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki oholean. Era berean, lizitatzailak aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lizitatzailaiei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die, aipatutako Araudiko 81. artikuluan, akatsak zuzen ditzaten.

2. ENPRESAK AUKERATZEA



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, baldintza-agiri honen 20. baldintzako e) letran azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

3. "B" KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA

"B" kartazalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizio baten arabera irizpideen baitan, publikoki irekiko da , eta horretarako parte hartzaileei zuzenean jakinaraziko zaie ,eguna eta ordua adieraziaz. Dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, Mahaiak, gehienez, sei egun balioduneko epea emango du horretarako, SPKLaren zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 EDaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Irizpide horiek balioesteko epea hamabost egunekoa izango da , irekiera-ekitaldia egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

4. ESKAINTZAK SAILKATZEA

Irizpide guztiak balioesten direnean, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu garrantziaren arabera eta esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen Orendaingo udaleko Osoko Bilkurari .

IV.-BIGARREN FASEAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK

22.-BIGARREN FASEAREN XEDEA

Udalak , kale baserriaren orubearen esleituei, lehiaketa ireki baten ondorioz hautatuei, bigarren faseari hasera emateko, ondorengo dokumentazioa eskuratuko die:

.-Lehen faseko hiru proposamen egokienak

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

.-Exekuzio proiektua

.- Udala eta esleituen arteko trukaketa eskritura publikoa , non udalak kale baserriaren orubea eta eskritura eskuratuko die, eta udalak, bertan egokituko den bitzita bat trukean jasoko du .

VI.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

23.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoen arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak onartzen duen, azaroaren 14ko, 3/2011 Errege Dekretu Legislatiboa; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 3/2011 EDLaren aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

24.- DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLTBaren Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu,



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

25.-JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta organoak erabakitakoek administrazioaren bidetara amaiera emango diote, hala badagokio, SPKLTBaren 40. artikulutik 49. artikulura xedatutakoaren arabera, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako edozein artikuluren arabera, kontratazioaren alorrean errekurtso berezia jartzeko aukeraren aurka egin gabe.

....., 20....(e)ko aren(a)

I. ERANSKINA .PROPOSAMEN EREDUA

Lizitatuzailearen datuak: Izen-abizenak,
Helbidea, Posta kodea,
NAN zenbakia, Telefonoa Helbide
elektronikoa....., zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin.
Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-abizenak
..... Helbidea
..... Posta kodea,
Telefonoa NAN edo IFK zenbakia (pertsone fisiko edo juridikoa
denaren arabera), kontratatzeko asmoz
..... k dei egindako prozedura ireki bidezko kontratazioan parte hartzeko gonbita
jaso dudala, hona hemen nire ADIERAZPENA:



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

1) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

2) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)ko aren(a)

Izenpea

MAHAIKIDEEK ERABAKI DUTE :

Lehena.-Lehiaketa arautuko duen baldintza plegua onartzea.

Bigarrena.-Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitara ematea bi hilabete epean, proposamenak jasotzeko.

Hirugarrena.-Orendaingo udaleko web orrialdean deialdia ikusgai jartzea eta deialdiarekin batera beharrezkoa den dokumentazioa.

Laugarrena.-Inguruko kontratistek erabakiaren berri ematea lehikaetan para hartu ahal izateko.

4.-UDALEKO ZUNTZ OPTIKOA ETA WIFI SAREA KUDEATZEKO HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA ETA HORETARAKO ALKATEARI AHALMENA EMATEA.

Orendaingo Udalak, azken hiruzpau urte hauetan, herrian internet sarea banatzeko eta guztietara iristeko lanean jardun izan da.

Zenbait operadore ezagunekin hitzegin da eta aurrerapenik ikusi ez denez, guifinet fundazioaren berri izan eta beraiekin lanean hasi zen. Orain, Udalak bere lanak amaituak

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

dituela eta udalaren sarea kudeatzeko asmoarekin hitzarmena sinatu nahi da, urte beterako.

Hitzarmenaren edukia ondorengoa da:

GUIFI.NET FUNDAZIO PRIBATUA ETA GKE DENAREN ETA ORENDAINGO UDALAREN ARTEKO ELKARLANERAKO HITZARMENA

ELKARTUTAKOAK:

Alde batetik Ramon Roca i Tió jauna, 33934095X NAN zenbakiduna "PATRONATO D ELA Fundació Privada per la xarxa Oberta, Lliure i Neutral guifi.net " aurrerantzean , Guifi.net Fundazioaren lehendakaria dena. Erakunde horren CIF zenbakia G64918212 da eta edozein jakinazpenetarako helbidea berriz, Jaume 1, El Conqueridor 3, 4T 1A duena, Vic (08500) herrian.

Bestetik, Gorka Egia Arregi jauna 72459307-s NAN zenbakiduna, Orendaingo herriko jarduneko alkatea dena. Erakunde horren CIF zenbakia P2009800J da eta edozein jakinerazpenetarako helbidea berriz, Errosario Plaza Z/G duena, Orendain (20269) herrian.

ADITZERA EMATEN DUTE:

Guifi.net fundazio pribatuaren aldetik:

A. Guifi.net fundazioa irabazi asmorik gabeko erakundea dela. Inongo afiliazio politikorik, gobernuartekorik edota ekonomikorik ez duena. Bere xedea sare ireki, aske eta neutrala sustatzea delarik baita norbanakoak, enpresak eta administrazioak informazio eta teknologiaren gizartean txertatzen laguntzea ere.

B. Guifi.net fundazioa Catalunyako Generalitateko fundazioen erregistroan izena emanda dagoela 2550 zenbakiarekin. Aldi berean, Merkatu eta Konpetentziaren Komisio Nazionaleko operadore eta telekomunikazioetako erregistroan izena emanda dagoena. Baita Garapenerako GKE erregistroan ere.

D. Guifi.net fundazioak aukera duela administrazio publikoarekin hitzarmenak egiteko Sektore Publikoko erregimeraren urriaren 1eko 40/2015 legearen 47 .1 artikulua ahalmentzen duelarik . Hau dela eta, alor publikoko kontratu legeko testu birgaldutua onartutzat jotzen da. Ildo honi eutsiz, gogoan hartu behar da, Guifi.net GKEa dela eta beste hainbat administrazio ere badituela antzeko akordioak GKE diren erakundeekin.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Orendaingo Udalaren aldetik:

A. Orendaingo Udalak Teknologia eta Informazioaren gizartea sustatzeko betebeharra duela Europar Batasunak 2009eko azaroaren 25ean Europako Legebiltzarra eta Kontseiluak erabakitako 2009/136/CE Agintea eta 2009/140/CE Aginteak, agintzen duenez.

B. Telekomunikazioetako maiatzaren 9ko 972014 legediak 9 artikuluan xedatzen duena beteaz, Orendainera zuntz optikoa ekartzeko eta zerbitzua emateko, "inversor privado" izan daitezkeenekin harremanetan jarri ostean, interesik agertu ez dutenez, udalak bere aldetik, sareak, ekarri eta banatzeko inbertsio lanak burutzea erabaki zuela 2015eko azaroaren 5eko Osoko Bilkuran.

C. Udalak sare hauek kudeatzeko inongo asmorik ez duela eta Guifi.net elkartearen helburua zein den aztertu ondoren, denboraldi jakin baterako sarearen erabilera arautzeko lankidetzak eskatzen zaiola, inolako konpentsazio ekonomiko edo bestelako trukerik gabe. Lankidetzak hitzarmena honek, operadore guztiei irekita egongo den sarea izatea du xedea.

D. Udalak, landa eremuan bizi diren herritarren garapena sustatzeko konpromezu hau hartzen du eta udalerriko etxe eta baserri guztietan interneta jasotzeko ahalmena izateko azpiegiturak eta sarea banatzeko lanak burutu ditu, herritar guztiek gutxieneko internet eskubidea izan dezaten, beren egunerokotasunerako eta beraien jarduera landa eremuan burutzeko.

Eta horregatik, helburu amakomuna, Orendaingo herritar, etxe eta baserri guztiek internet zerbitzu orokorra erabiltzeko eskubidea izatearen alde, Urriaren 1eko 40/2015 legeak, 47 artikuluan hitzarmenaren definizioa eta modalitatea arautzen duenean babesean egiten da, zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko, eta hitzarmen honek ez du inolako eraginik sortuko udaleko aurrekontuan, eta aurrekontuaren iraunkortasuna eta eraginkortasun finantziario irizpideak osotasunean beteko dira.

ADOSTEN DUTE:

LEHENA: HELBURUA

Orendaingo Udalak atxikituta dagoen eranskinean agertzen diren azpiegiturak eta sareak, hitzarmenak irauten duen bitartean, Guifi.net fundazio pribatu eta GKEaren esku jartzea, azpiegitura eta sarearen erabilera arautzeko. Edozein operadoreak betebeharrak



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

eta eskubdei berdinez, udalarenak diren azpiegitura eta sarea erabiltzeko aukera izan dezan .

BIGARRENA: KONPROMEZUAK

Guifi.net fundazio pribatuaren aldetik:

A. Orendaingo herrian internet zerbitzua izango dela bermatzea, Fundazioak dituen irizpidearen arabera, sarea erabiltzeko baimenduak diren operadoreen bidez.

B. Azpiegitura eta sarearen mantenua eta zerbitzua eskaintzeko behar diren gastuei aurre egiten zaiela bermatzea, kudeaketa bere gain dagoen bitartean sarea erabiltzen duten operadore bidez. Eta instalazioak udalari itzultzerakoan baldintza hobeezinetan uztea .

D. Norbanakoei, enpresei eta administrazio publikoari, diskriminaziorik gabe, askatasunean, aukera berdintasuna ziurtatuz eta libreki komunikatzeko bermea eskaintzea.

E. Amankomuna den Sarea erabiltzeko aukera eskaintzea berdintasunean, gardentasunez eta diskriminaziorik gabe, edozein dela ere telekomunikazio enpresa. Ziurtatuz, aktibitate ekonomikoa Amankomuna den Sarearen baldintzetan emango dela eta inoiz ez azpiegituren espekulazioan edota jabetzan oinarrituz. Guzti hau, 9/2014eko Telekomunikazioen Lege Orokorrak agintzen duena betez.

F. Amankomuna den Sarearen bideragarritasuna bermatzea. Bertan parte-hartzen duten eta irabazi asmoak dituzten enpresek merkatu librearen baldintzetan aritu daitezten. Beti ere, Guifi.neten estatutuetan dauden balioak beteko direla ziurtatuz.

G. Azpiegituren eta sareraren zabaltze lanetan aholkularitza ematea.

H. Udala Guifinet egiten ari denaren gainean informatuta izatea. Hala behar izan ezker baimen, lizentzia eta proiektuak aurkeztuz. Aldi berean urteroko jarraipena egitea bilera baten bidez gutxienez.

Orendaingo Udalaren aldetik:

A. Orendaingo Udalak bere jabetzako sare eta azpiegiturak , telekomunikazio lanari dagozkionak eta hitzarmenari erantsia geratuko direnak , Guifi.net fundazio pribatu eta

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

GKEaren esku jartzea., beraien erabilera arautzeko .Beti ere 9/2014 maiatzak 9ko Telekomunikazioen legeak ezartzen duena errespetatuz.

B. Azpiegitura zabaltzeko aukera eskaintzen duten eta udalarenak diren bestelako azpiegiturak ere Guifineten eskura jartzea.

D. Udalak ez du ez lehentasunik ezta eksklusibitate ere ezarriko Guifi.neti dagokionean.

E. Udalak ez du operadora funtziorik beteko, ez eta Fundazioak ere,ez baidute telekomunikazio zerbitzurik eskainiko.

F. Udalak ,egindako azpiegituren eta sareraren mantenurik ez du egingo eta ez du operadoreek bere jardueretan izan ditzaketan gal edo irabazietan zer ikusirik izango .

HIRUGARRENA: HITZARMENAREN ZABALKUNDEA ETA IRAGARPENA

Bi erakundeak bakoitzak bere web-orrian edota bestelako moduren batean iragartzeko eskubidea izango du. Bi erakundeak bata bestearen ikurrak eta logoak erabili ahal izango ditu beti ere aurrez baimen eskaera egin ondoren.

LAUGARRENA: IRAUPENA

Hitzarmen honek urtebeteko iraupena izango du sinatzen den unetik kontaktzen hasita . Atzera bota ezean urtero berez berrituko daitekeena .

BOSTGARRENA: HITZARMENA INDARGABETZEA

Ondoko arrazoi hauetakoren baten bidez indargabetu ahal izango da hitzarmena:

A. Bi aldetakoren baten borondatez. Hitzarmena indargabetzeko asmoa hiru hilabete aurretik jakinarazi beharko dio besteari. Baita hitzarmenaren jarraipena eten nahi bada ere.

B. Bi erakundeen ahobateko adostasunez.

D. Ezarri litezkeen araudien araberako ondorioren batengatik.

E. Hitzarmen honetan ezarritako konpromezuak ez badira betetzen.

SEIGARRENA: ALDAKETAK

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Hitzarmen honen edozein aldaketa bi erakundeen artean sinatutako dokumentu gehigarri batean egingo da.

ZAZPIGARRENA: ESKUMENA (JURISDIKZIOA)

Hitzarmen honek izaera administratiboa izanik, hitzarmenean sortu daitezkeen interpretazio edo gaizki ulertuak, auzi administratiboan ebatzi behar dira.

ZORTZIGARRENA: SINADURAK

Guifi.net fundazioko lehendakaria

Orendaingo Udaleko alkatea

MAHAIKIDEEK ERABAKI DUTE :

LEHENA.-Udalaren helburua etxe guztietara iristea izanik , eta aukera hau bermatzea nahi denez , Kataluniako zenbait udalerrietan egin den bezala , Fundazioarekin hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA.-Telekomunikazio legediak ezartzen duen bezala , udalaren sarearen berri telekomunikazio erregistro nagusian alta ematea eta operadore guztiei ezagutzera ematea .

HIRUGARRENA.-Hitzarmena sinatzeko eskumena alkateari ematea .

5.-GIZARTE ZERBITZU ETA KULTUR ARDURADUNEK ESKUALDEAN AURKEZTU DUTEN KEXA IDATZIARI BABESA EMATEA ETA ALDUNDIARI AURKEZTEA .

Eskualdeko gizarte zerbitzuen taldetik eta kultur arduradunetatik proposatutako idatzi kexa hau bideratu da Osoko Bilkurara onarpena emateko .

Idatziaren edukia honakoa da :

“Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapen Sistema (Gaztematika) inplementatzen hasi ginenean helburu nagusienetako bat zen Gipuzkoako haur, nerabe eta gazte guztiei bizitzaz disfrutatzeko eta jendartean modu egokian integratzeko aukera berdinak ematea.

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Horrek esan nahi du lurralde osoan –herri handi zein txikitan bizi– haur eta gazteek zerbitzu eta sustapen eskaintza berdintsuak izango dituztela.

Helburu nagusi horrekin lanean hasi ginen, eta 1000 biztanle baino gutxiago dituzten herrien arteko lan talde bat osatu genuen haur eta gazteen sustapena bultzatzeko. Bi erakundeen (udalak eta aldundia) sustapen arloetatik bideratutako baliabideak nahiko ez zirela ikusirik, elkarlanerako lagunak bilatzen hasi ginen. Horrela jaio zen Aldundiko Berdintasun arloarekin batera garatutako “Txikiak Berdinbidean” proiektua. Egitasmo horren bidez herri txikietan bi arloen arteko (sustapena eta berdintasuna) elkarlanerako eremuak eta bideak aztertu, eta abian jarri genituen. Proiektu horretatik ateratako ondorio nagusietako bat da herri txikietan haur, nerabe eta gazteen sustapena lantzeko premia dagoela, eta horretarako baliabide gehiago behar direla.

Errealitate hori ikusita, eta landa eremuko haur eta gazteak herri horien etorkizuna direla kontutan harturik, herri txikietan haur eta gazteentzako kalitatezko zerbitzuak eskaintzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Herrietan bertan zerbitzuak eskaini beharko genituzke gazteak herrietatik alde ez egiteko. Zerbitzu horien bidez ere landuko genuke haur eta gazteen artean herritartasun aktiboa, herri bizitza berpizteko oinarri izango dena.

Horrekin guztiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiak legegintzaldirako diseinatutako plan estrategikoko helburuetako bat izanik “**Landa ingurunean hiri ingurunearen antzeko zerbitzuak (integralak) eta gizarte ongizatea lortzea, biztanleria eusteaz gain, landa eremuak erakargarri eta lehiakor egiteko**”, taldea osatzen dugun herriek Aldundiari eskatzen diogu gure errealitatera egokitutako lan harremana bultzatzea. Horretarako bide interesgarri bat izan daiteke Aldundiko sail ezberdinetatik herri txikietara zuzentzen diren laguntzak aztertu eta bateratzeko aukeren inguruko hausnarketa egitea.”

Idatzi kexa honen berri jakin ostean , MAHAIKIDEEK ERABAKI DUTE :

1.-Idatziari onarpena ematea , eta Aldundira helaraztea .

6.-KALE EREMUKO 7 BIZITZAREN HABITABILITATE BAIMENA ONARTZEA

2016eko abuztuaren 17ean , eskatzaileak , obra amaiera eskaera aurkeztu du, lehen okupazio eta bizigarritasun baimena onartu ahal izateko .

Eskaeraren inguruan , honako txostenak luzatzen dira :

IDAZKARIAREN TXOSTENA :

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)
Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064
e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

2001eko maiatzaren 11eko Osoko Bilkuran, Jesus Mari Aldumberri jaunak, Kale eremuko 7. partzelaren jabeak aurkeztutako oinarrizko proiektuari onarpena eman eta eraikitze baimena ere onartzea erabaki zen.

ERAIKUNTZA ETA OBRA ZERGA

Aurkeztutako oinarrizko proiektuan, exekuzio materialaren zenbatekoa 96.000,00 eurotakoa zen eta honen ondorioz, eraikuntza eta obra zerga kontzeptuan, 1920 euro ordaindu zituen, hau da, aurrekontuaren %2 a.

Obra amaiera eta lehen okupazio eskaerarako aurkeztu duen likidazioan, sinatzen duen arkitektoak, aurrekontuaren igoeraren arrazoiak azaltzeaz gain, exekuzio materiala 252.464,53 eurotakoa dela esaten da. Eta ondorioz, haserako aurrekontutik likidaziora bitarteko aldearen %2 a eraikuntza eta obra zerga kontzeptuan ordaindu behar da. Beraz, exekuzio materialaren aldea 156.464,53 € dira (252.464,53-96.000,00), eta honen %2 a 3.129,29€ likidatu behar dira.

UDAL BAIMENEN BESTELAKO BALDINTZAK

Partzelaren inorenganetzea arautzen duen baldintza pleguaren 8. klausula:

Kale eremuko partzelen eta etxeen izaera kontutan hartuaz, partzela esleitu zeneko baldintza pleguan 8. klausulan ezarritako baldintza zen, eraikitze udal baimena eskuratzen zuenetik kontatuta bi urteko epea zuela bertan bizitza egiteko. Eta horrela ezean, udalak, oinarrizko proiektuko aurrekontuaren % 3ko isuna ezartzeko eskubidea duela.

Obra amaierako egiaztagirian, exekuzio materiala 252.464,53 eurotakoa dela esaten da, eta hori orain, bizigarritasun baimena eta lehen okupazio baimena eskaerarekin batera aurkeztu da.

Beraz, baldintza pleguan ezarritako 8. klausula ez betetzeak, udalari isuna aplikatzeko eskubidea ematen dio, 252.464,53 € ren % 3 a, hau da 7.573,93 €.

Baldintza pleguaren 12 . klausula:

Orendaingo udalak, partzela hauen bidez zuen helburua kontutan hartuaz, bertan bizitzeaz gain, lehenengo hamabost urteetan erroldatik baja emateak, udalak 7. partzelari dagokion urbanizazio kontzeptuan egindako gastua gehi, gastuaren %20 a erantsi eta eskatzeko eskubidea du. Horretarako, 7. partzelaren urbanizazio lanaren kostu zehatza kalkulatu behar da.

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Urbanizazio lanetarako adostutako ekarpena

2001eko apirilaren 20 sinatu eta sinatu ez zutenek ere beren 12.000 euroko ekarpena egin zuten, urbanizazio lanak udalarekin batera burutzeko . Ekarpen hau, udaleko idazkariak egindako txostenetan agertzen da eta horrela jakinarazi izan zaio, gaur egun, kale eremuko 7 partzelaren obra amaiera eta lehen okupazio baimena eskatu duenari kontzeptu honetan besteek ordaindu dutena oraindik ordaintzeko jarraitzen duela .

ARKITEKTOAREN TXOSTENA

I.- SARRERA. AURREKARIAK.

2016KO Abuztuaren 17an, Promoción Estable del Norte S.L.(PROENOR)- a.10.10.7 partzelan eraikitako Familia Bakarreko Etxebizitza Bioklimatikoaren lehen erabilerako lizentzia eskaria aurkezten du.

Honako txosten teknikoak, Udal idazkariak eraikin honi buruz idatzitakoa osatzen du, udal baimenaren baldintza ekonomikoei dagokiona.

Eskariak ardatz duen eraikinak 2.001eko maiatzaren 11n jaso zuen obrak burutzeko Udal baimena.

Eskariarekin batera Obraren Zuzendaritzaren Azken Ziurtagiria aurkezten da, Maria Aznarez Alvarez eta Beatriz Gastesi Irañeta arkitekto teknikoek eta Silvia Ortiz de Elguea Anduaga arkitektoak sinatua, eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak oniritzia 2.004ko maiatzaren 4ean. Bertan, 2.004ko maiatzaren 20an etxebizitzaren eraikuntza lanak amaitu

zirela ziurtatzen da.

Horretaz gain, 2016ko Uztailaren 21ean Silvia Ortiz de Elguea arkitektoak sinatutako ziurtagiria aurkezten da, 2.004ko ekainaren 28an berak sinatutako dokumentazioan agertutako aldaketak eta obraren kitapena ziurtatuz. Obraren azken kitapena 252.464,53 €-koa da, eta E.H.A.E.O.ren oniritzia jaso zuen 2.004ko maiatzaren 4ean.

Ondasun Higiezinaren gaineko zergan alta eskariaren inprimakiaren kopia bat aurkezten da (1965. urteko estatuko eredu bati jarraituz).

II.- TXOSTEN TEKNIKOA

Obren egoera ikustera joan ondoren, egiaztatzen dugu obrak eraikitzeko lizentzia eskuratu zuen proiektuaren eta orain aurkeztu den obra amaierako dokumentazioaren arabera egin direla. Aurkeztu diren aldaketak erabilitako materialeetan eragina dute batipat, eta bat datoz Orendaingo Arau Subsidiarioetan araututakoarekin.

1. erabilerarako baimena emateko aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionean, Arau Subsidiarioetako Hirigintza Arauen 17.4 Artikuluak zehazten du:

" Eskariarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Memoria eta aldatutako planoak, horrelakorik balego.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

b) Lanak bukatuta daudela ziurtatzen duen agiria Lanen Zuzendariak edo Zuzendariek izenpetuta eta lanei

dagozkien Elkargoen oniritziarekin.

c) Hiri Kontribuzioan alta hartu dutenaren ziurtagiriaren fotokopia (HK4-HK5).

d) Etxaurrearen argazkia.

e) Eguneratutako kartografiako planoak, 1: 500 eskalan.

f) Lanaren benetako kitapena, Zuzendariak izenpetuta eta Elkargoaren oniritziarekin"

Hiri Kontribuzioari dagokion aurkeztutako inprimakia erabat zaharkitua dago. **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun Sailaren inprimaki normalizatua aurkeztu beharko da, dagokion zigiluarekin.**

Eraikinaren 4 fatxaden argazkiak aurkeztu behar dira.

Horretaz gain, Udaletxearen zerbitzu teknikoek, 10.E.U.-aren urbanizazio lanei eta partzela eraikigarriari buruz idatzitako txostenak a.10.10.7 Partzelari dagokionean honela dio:

2.7.- PARCELA a.10.10.7

No tiene licencia de primera utilización. Cuando la solicite y para su concesión se le deberá requerir junto

con la correspondiente documentación:

- un tratamiento superficial a la escollera para minimizar su impacto visual, de modo conjunto

con el resto de parcelas.

- Un plano de cartografía actualizado a escala 1: 500, digitalizado, que incluya las edificaciones y las obras de urbanización realizadas, señalándose las nuevas cotas de rasante resultante y el trazado de las redes de servicio y acometidas de infraestructuras.

- Deberá quedar establecida la servidumbre de la red de saneamiento de fecales.

Deberá definir el tipo de cierre respecto del vial público y los accesos (peatonales y de vehículos), y estar ejecutados para poder rematar la urbanización. Los cuadros de contadores tendrán acceso para su lectura desde el exterior.

Deberán dejar los espacios públicos, utilizados con relación a la ejecución de sus obras, en el mismo estado que se encontraban previo al comienzo de las mismas (acopio de materiales de obra, hormigones echados para acondicionamiento de accesos provisionales, colocación de grúa...).

Uhaitz-hormaren tratamenduari dagokionean, ez da inongo uhaitz-hormarik lursailean (egongo balitz ere, belarrak estalia dago iada), beraz ez da beharrezko ikusten.

Aurkeztutako **urbanizazio planua egokitu egin beharko da, eta euskarri digitalean (.dwg formatuan) aurkeztu.** Bertan, eginiko eraikuntza eta urbanizazio lanak azaldu beharko dira, lurraren sestra eta kota berriak, bai eta azpiegitura sare eta hartuneak agertzen dituenak.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Lursailetik pasatzen den **ur-beltzen saneamendu sarearen zortasuna** agertu behar da dagokion eskrituratan.

Obrak egiteko emandako udal baimenak zioen bezala, **lursail pribatuaren eta bide publikoaren arteko itxitura Urbanizazio Proiektuan jasoa dagoen bezala burutua egon beharko da** lehen erabilerako baimena emateko. Gaur egun ez dago itxiturarik.

III.- ONDORIOA

Adierazitakoaren aurrean, **eskariaren aurkako txostena igortzen da**, hobe sortutako beste baten eskura utziz. Era berean, Hirigintzako Batzordeari igortzen zaio, prozedurarik egokiena ezar dezan. **Orendain, 2016ko Irailaren 7an.**

DOKUMENTAZIO OSAGARRIA

2016eko irailaren 30ean , arkitektoak eskatutako honako dokumentazio osagarria aurkezten du :

- .-U-4 inprimakia egokia baina Foru ogasunean sarrera eman gabe
- .-Argazkiak
- .-Plano topografikoa .
- .-Urbanizazio plana euskarri digitalean .

Aldiz, **lursail pribatuaren eta bide publikoaren arteko itxitura Urbanizazio Proiektuan jasoa dagoen bezala burutua egon beharko da** , ere ez da derrigorrezkoa ikusten . Egunen batetan egiten bada udalari jakinarazi eta dagokion prozedura jarraitu beharko du .

Guztia hau ikusi ondoren , **ERABAKI DA** :

Bat.-Obraren amaiera , aurkeztutako proiektuaren arabera egina dagoenez , lehen okupazio eta bizigarritasun baimena onartzea .

Bi.-Indarrean dagoen udal agintarauen arabera , eraikuntza eta zerga kontzeptuan 3.129,29 euro udalari ordaintzeko likidazioa luzatzea .

Hiru.-U-4 inprimakia Foru Ogasunean sarrera eman eta udalean aurkeztea .

Lau.- Kale eremu eta bizitzen helburua ez bete izanak baldintza pleguko 8. klausulak dioenaren arabera 7.573,93 € ordaintzeko likidazioa luzatzea . Eta baldintza pleguko 12. klausulan esaten dena betetzeko , udaleko arkitektoari balorazioa egitea eskatzea.

Bost.-Urbanizazio lanetarako beste bizilagunek egindako ekarpena 12.000 eurotako , ordaintzeko dagoenez , ordaintzeko likidazioa luzatzea .

Sei.- Eskritura berriak egiten direnean ur-beltzen saneamendu sarearen zortasuna jasotzea.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Zazpi.-Eskatzaileari erabakiaren berri ematea .

7.-ERAIKIN BERRIKO ZERBITZUEN ANTOLAKUNTZA LANEN ESLEIPENA EGITEA , AURKEZTU DIREN PROPOSAMENAK AZTERTURIK .

Orendaingo eraikin berrian, hainbat zerbitzu eskaintzeko prestaketa eta atontzeko lanak eskeintzea da helburua.

Proiektua gauzatzeko, eskatutako diru laguntzak dira: Aldundiako lurralde oreka departamentua, Aldundiako kirola departamentua, eta Jaurlaritzako Erein egitasmoa.

Orain arte onartutako laguntzak dira :

- Lurralde Oreka 21.199,92€
- Kirola 10.567,50€

Eta Jaurlaritzako Erein egitasmoa erabakitzeke dago.

Kontutan hartuz, Aldundiako dirulaguntzak 2016eko azaroaren 20erako zuritu beharrekoak direla, honako esleipenak egitea erabaki da:

IAR ERAIKUNTZAK	47.235,23€ (iar+ elkarte+gimnasioa)
SALTO	7.013,22€
AIZKORPE.....	9.908,56€ (elektrikoa+internet konexioa)
GUZTIRA	64.157,01 €

8.-JAURLARITZA ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMENA , ELKARREN ARTEKO DATUEN ERABILERA ERRAZTEKO , SINATZEA ETA HORRETARAKO ALKATEA BAIMENTZEA .

(Eredu zaharra erabili zen baina onarpena ematerako berria onartu behar zela esan zuten eta eredia bidaltzeko daude)

9.-ORENDAINGO MAPA DIGITALA LANAK AMAITU DIRELA ETA FAKTURA ORDAINTZEA ONARTZEA .

Orendaingo mapa municipal lanaren amaiera SGsmap enpresak erakutsi du eta bide batez, udaleko instalazio eta azpiegiturek ere jaso dira.

Halere, hainbat akats ikusi ziren eta zuzentzeko geratu zen.

Lanaren zuriketa, irailaren 9 rako egin behar zen, eta horrela aurkeztu zen Jaurlaritzan, laguntza jaso ahal izateko.

Lanaren kostua 7900 eurotakoa da beza barne, eta onartutako laguntza 5.916,15 euro dira.

Lanak osotasunean amaitu eta web orrialdedan zintzikikatuko dira , eta instalazio eta azpiegiturei dagokionez, inprimatu eta eskuartean erabiltzeko moduan izatea nahi da.

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Azkenik , faktura onartu eta ordainketa egitea erabaki da.

10.-ORENDAINGO WEB ORRIALDEAREN LANAK AMAITU DIRELA ETA FAKTURA ORDAINTEA.

Web orrialdeko lanak osotasunean udalari ez baizkio eskuratu ere, 2016 urtean ordainketa egitea erabaki da, eta horrela %100ean ordainduta gertauko da.

11.- ALKATEAK AZKEN BILERETIK HONA EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA :

2016-08: IKAZTEGIETARI SUAK UZTEA

Ikusirik, Ikaztegietakako udalak maiatzaren 26ko atarekin Orendaingo udalari suak eskatu dizkiola San Lorentzo jaiak ospatzeko.

Ikusirik, eskatzaileak lehengo urtean ere eskaera egin zuela eta onartu zitzaioela.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuaz.

Alkateak erabaki du:

Bat: Eskaera onartzea

Bi: Eskaera egin duen udala materialaren garraioaz (eraman eta ekartzea) arduratzea

Hiru: Materiala ematen zaien egoera berdinean jasotzea bueltan

Lau: Eskatzaileari erabakiaren berri ematea

2016-09 : KALE BIZITZEN HEDAPENA GASTUA

Ikusirik,Kale baserria eraberritze lanetarako ideien lehiaketa antolatu zen .Lehiaketa prozesua amaitu da eta EKOKALE izena zuena iraabszle suertatu zen

Ikusirik, prozesuarekin aurrera jarraitzeko , proiektuaren berri herrian ematea beharrezkoa dela .

Ikusirik, proiektuaren hedapena lanak egiteko honako proposamen hau jaso dela :

.-Esku orria , bi aldeetatik informazio koloretan450,00€
.-5mmko pluma kartoia deritzanean A0 841X 1189
neurrietako maketazioa egitea640,00€
.-Hiru minutuko bideo muntaia , musika , eta bizitzaren
kanpo eta barneko irudiekin2.950,00€



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuaz.

Alkateak erabaki du:

Bat- Proiektuaren hedapenerako proposatutako lanak , ondoren adierazten diren bezala eta bere prezioekin :

- .-Esku orria , bi aldeetatik informazio koloretan450,00€
- .-5mmko pluma kartoia deritzanean A0 841X 1189 neurrietako maketazioa egitea640,00€
- .-Hiru minutuko bideo muntaia , musika , eta bizitzaren kanpo eta barneko irudiekin2.950,00€

Onartzea eta lehiaketan irabazleak izan direnei lana egitea eskatzea .

Bi- Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

Hiru - Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.

2016-10: BASO ESKOLAKO OINARRIZKO PROIEKTUA ESKATZEA **GAIA: BASO ESKOLA GAUZATZEKO OINARRIZKO PROIEKTUAREN** **ERREDAKZIOA**

Ikusirik, Orendaingo udalak , baso eskola proiektu berritzailea gauzatu nahi duela eta lehenengo urratsak emateko oinarrizko proiektuaren erredakzioa egin nahi duela.

Ikusirik, proiektua berritzailea dela eta erredakzioa egiteko ezagutza ekologikoa behar duela ARI ARKITEKTURARI proposamena egitea eskatu zitzaion .

Kontutan hartuaz, hasera emateko egin duen eskaintza , hau da oinarrizko proiektuaren erredakzioaren kostua 5.740 eurotako beza kanpo dela .

Kontutan hartuaz , 2016eko aurrekontuan , lan hau burutzeko aurreikuspena egina dagoela .

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuaz.

ALKATEAK ERABAKI DU

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Bat.- Baso eskolako proiektuaren oinarritzko proiektua erredaktatzea, ARI ARKITEKTURARI eskeitzea, 5.740 eurotan, beza kanpo.

Bi.- Erabakiaren berri ARI ARKITEKTURARI ematea.

Hiru.- Hurrengo bilkuran erabakiaren berri ematea.

2016-11: M.A. A. A LIZENTZIA ONARTZEA GAIA: ORENDAINGO EGUZKI ALDE ERAIKINEKO 8A ZENBAKIDUN ETXEBIZITZA BITAN BANATZEKO ESKAERARI DAGOKION TXOSTEN TEKNIKOA.

Kontutan hartuaz, 2015eko azaroaren 5eko osoko Bilkuran Eguzki alde etxea bitan banatzeko eskaera onartu zela ondorengo baldintzarekin :

LEHENA.-Eguzki alde etxean bizitza bat gehiago ahalbideratzeko, proiektuan esaten den bezala, baimena onartzea.

BIGARRENA.-Obra amaiera egiten denean, eta obra berriaren aitortpena egiten denean segregatzeko baimena onartzea.

HIRUGARRENA.-Udal Agintaruek dioenaren arabera, eraikuntza zerga ordaintzea eta likidatzea.

LAUGARRENA.-Obra amaitzen denean, eta eskritura publiko egindakoan, Ondasun higiezinaren erroldan alta ematea.

BOSGARRENA .-Eskatzaileari erabakairen berri ematea.

Kontutan hartuaz, eskatzaileak, aurkeztu zuen etxearen banaketa aldatu egin duela eta berriro proiektu berria aurkeztu duela, 2016eko ekainaren 9an.

Kontutan hartuaz, udaleko arkitektoari, proiektuaren azterketa eta txostena luzatzea eskatu zaiola. Eta txostenaren edukia ondorengo dela:

TXOSTEN ZK.: A-16 OE 002 ORENDAINGO EGUZKI ALDE ERAIKINEKO 8A ZENBAKIDUN ETXEBIZITZA BITAN BANATZEKO ESKAERARI DAGOKION TXOSTEN TEKNIKOA.

I.- SARRERA. AURREKARIAK.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

2016ko Ekainaren 9an, Miguel Angel Arsuaga Azurmendik, Orendaingo Eguzki Alde eraikineko 8A zenbakidun etxebizitza bitan banatzeko aurretik eginiko eskaeraren baldintzak aldatzea eskatu zuen. Horretarako, Harri Barandiaran Mendizabal arkitektoak sinatutako eta E.H.A.E.O.ak 2016ko Ekainaren 2an oniritzitako "Etxebizitza banatzeko Proiektua. Proiektuaren Aldaketa" aurkeztu zuen. Proiektuak 28.029,00 euroko aurrekontua du (E.M.P.).

Proiektuaren aldaketa osatzen duten dokumentuak honakoak dira: **Memoria, Aurrekontua, Eraikuntzaren eta Eraispeneren Hondakinen Kudeaketari buruzko Azterketa eta Planuak.**

Eskaerak ardatz duen **Eguzki Alde eraikina finkatua dago indarrean dauden Orendaingo Arau Subsidiarioen Testu Bateratuan.** Lurzoru hiritar bezala sailkatutako lurreen kokatzen da eta A.10 Egoitza erabilera dauka.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2016ko maiatzaren 10eko batzarraldian Orendaingo Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa Puntualari, lurzoru hiritar finkatua dauden zenbait eraikinetan ahalbidetutako gehienezko etxebizitza kopuruari buruzkoari, behin betiko onarpena eman zion.

Aurretik, eskatzaileak etxebizitza banatzeko udal baimena jaso zuen, 2015eko irailean aurkeztutako proiektuaren arabera.

II.- TXOSTEN TEKNIKOA

Eskari berriaren xedea da, aurretik aurkeztutako eta banaketa egiteko baimena jaso zuen proposamenaren ezaugarriak aldatzea. Aurreko proposamenaren arabera, Etxebizitza batek gaur egungo iparraldeko sarrera mantenduko luke, behe solairuaren zati bat eta 1. solairu osoa beretzat hartuz. Bigarren etxebizitzak berriz, hegoaldeko fatxadan kokatutako egungo sarrera erabiliko luke, eta erdi-soto eta behe solairuaren gainerako zatian garatuko litzateke.

Proposamen berriaren arabera, etxebizitza batek ("2" etxebizitzak) gaur egungo behe eta 1. solairu osoak beretzat hartuko ditu, egungo iparraldeko sarrera mantenduz. Beste etxebizitzak ("1" etxebizitzak) erdi-sotoaren azalera osoa hartuko du -iparraldeko zatia izan ezik, 2,15 m-ko altuerak ez baitu ahalbidetzen-, sarrera bezala hegoaldeko fatxadako



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

egungo sarrera erabiliz. Horretarako, gaur egun behe eta erdi-soto solairuak batzen dituen eskailera eraistea proposatzen da.

Eraikigarritasunari dagokionean, gaur egungo etxebizitzak 259,96 m²ko azalera eraikia dauka (192,33m² erabilgarri). Banaketaren ondorioz, "1" etxebizitzak 101,65 m² eraiki (53,12 m² erabilgarri) eta "2" etxebizitzak 158,31 m² eraiki (136,22 m² erabilgarri) izango dituzte.

Eraikinaren lerrokadura eta sestrei dagokionean, bai eta eraikuntza profilari dagokionean, proiektuak gaur egun dagoena errespetatzen du. Fatxadek ez dute aldaketa esanguratsurik jasango, soilik erdi-sotoko garajerako atea etxebizitzarako sarrera bezala moldatuko da.

Gaur egun indarrean dagoen Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren arabera, *Orendaingo Arau Subsidiarioetako Testu bateratuak Orendaingo Hirigunean Bizitegi-Eraikuntza Finkatu bezala izendatzen dituen eraikinetan, gaur egungo etxebizitza kopurua handitzea onartuko da barne-banaketaren bitartez, zenbait baldintza betetzera derrigortuz. Aurretik esan den bezala eraikina lurzoru hiritarrean kokatua dago, eta etxebizitza erabilerarekin finkatua aurkitzen da indarrean dauden AA.SS.etan, Hori horrela, **AA.SS.en Aldaketako aplikazio-eremuaren barruan dago.***

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, proiektu berrian Arau Aldaketak aipatzen dituen azalera eta konposizio baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen da. Horren inguruan, esan, arauak behartzen dituen bi aparkalekuak eraikinetik kanpo baino lursail pribatuaren barruan kokatzen direla, eta egungo lursailerako sarrera eta eraikinerako sarrerak bere horretan mantentzen direla.

Bizigarritasun baldintzei dagokionez, banaketaren ondorio diren bi etxebizitzek Orendaingo Arau Subsidiarioetako bizigarritasun baldintzak betetzen dituzte (33-36 artikulua).

Irisgarritasun baldintzei dagokienez, jatorrizko proiektuaren irizpideak mantentzen dira.

Proiektu berriak eraikuntzan eragina duten Eraikuntzaren Kode Teknikoaren (CTE) oinarritzko eskakizunak betetzen dituela justifikatzen du, proposatutako aldaketei dagokionean. Gainerakoetan, jatorrizko proiektura igortzen da.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Aurkeztutako gainerako dokumentazioa aztertuta, zehaztapen teknikoei eta hirigintzako zehaztapenei dagokienez, zuzena eta osoa dela egiaztatzen da. Baldintza Plegua, Segurtasun eta osasunaren oinarritzko azterketa eta Kalitatearen Kontrol Planari dagokionean, jatorrizko proiektuarekin aurkeztutakoak egongo dira indarrean, aldaketarik ez baitute jasan.

Hori dela eta, **Orendaingo Eguzki Alde eraikineko 8A zenbakidun etxebizitza bitan banatzeko proposamen berriari baimena eman daitekeela irizten diot.**

III.- ONDORIOA

Adierazitakoaren aurrean, **espedientearen aldeko txostena** igortzen dut. Era berean, Hirigintzako Batzordeari igortzen zaio, prozedurarik egokiena ezar dezan.

Udaleko arkitektoan luzatu duen txostena ikusita, aipirilaren 2ko 771985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuaz.

ALKATEAK ERABAKI DU

Bat.- Miguel Angel Arsuaga Azurmendi jaunari, Eguzkialde etxeke segregazio banaketa egiteko baimena onartzea, proiektuan jasozten de eran honela geratuaz:

1.- Etxebizitza batek ("2" etxebizitzak) gaur egungo behe eta 1. solairu osoak beretzat hartuko ditu, egungo iparraldeko sarrera mantenduz. Banaketaren ondorioz, 158,31 m² eraiki eta 136,22 m² erabilgarri izango ditu.

2.- Beste etxebizitzak ("1" etxebizitzak) erdi-sotoaren azalera osoa hartuko du - iparraldeko zatia izan ezik, 2,15 m-ko altuerak ez baitu ahalbidetzen-, sarrera bezala hegoaldeko fatxadako egungo sarrera erabiliz. Horretarako, gaur egun behe eta erdi-soto solairuak batzen dituen eskailera eraistea proposatzen da. Banaketaren ondorioz, "1" etxebizitzak 101,65 m² eraiki eta 53,12 m² erabilgarri izango ditu.

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Bi.- Proiektuan jasotzen den eran, "1" deritzan bizitzaren exekuzioa egitea eta bitzitza berria habilitatzea onartzea.

Hiru.- Udal Agintarauen arabera, Eraikuntza eta Obra zerga ordaintzea.

Lau.- Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.

Bost .- Hurrengo bilkuran erabakiaren berri ematea.

2016-12:MINISTERITZAREN ERREKERIMENDUA ERANTZUTEA

Visto el escrito presentado por la Secretaría General de Coordinación Autonómica y Local de la Secretaría de Estado de Administraciones Públicas del Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas, por el que se requiere la remisión de la información económico-financiera correspondiente a los ejercicios 2013, 2014, 2015 y la procedente de 2016.

Teniendo en cuenta que las corporaciones locales del País Vasco deberán remitir dicha información a través de la intervención o unidades que ejerzan estas funciones en las diputaciones forales, tal como preceptúa el artículo 4-4 de la orden HAP/2015/2012, de 1 de octubre.

Considerando que el artículo 8 de la Norma Foral 1/2013, de 8 de febrero por la que se desarrolla la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Gipuzkoa dispone que a efectos de la instrumentación del principio de transparencia, al amparo de la disposición adicional única de la Orden HAP/2105/2012, la Diputación Foral de Gipuzkoa suministrará la información de las entidades locales de Gipuzkoa.

Habiendo remitido la documentación solicitada a la Diputación Foral de Gipuzkoa en cumplimiento de la normativa vigente.

De conformidad con los preceptos legales precitados y demás de pertinente aplicación

RESUELVO

No ha lugar a la tramitación del requerimiento remitido por la Secretaria General de Coordinación Autonómica y Local de la Secretaría de Estado de Administraciones Públicas del Ministerio de Hacienda y Administración Pública.

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante el juzgado de lo contencioso-administrativo de Donostia-San Sebastián que por turno corresponda en el plazo de dos meses, a contar a partir del día siguiente de su notificación. Sin perjuicio de que la Administración Pública interesada pueda presentar el potestativo requerimiento previo o cualquier otro recurso que estime pertinente.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 109 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y en los artículos 8, 44 y 46 de la Ley 29/ 98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

2016-13:GAZTA ELKARTEARI LAGUNTZA ONARTZEA

Artzai gazta elkartearen izenean , herriko artzaia den Jose Antonio Garmendia jaunak , laguntza eskaera bideratu du udal honetara.

Donostian , 2016eko azaroaren 16-18ean, “ Euskadi Basque Country International Cheese Festival “ ospatuko dela eta bertan parte hartze ondorioetarako eskaera luzatzen da .

Apirilaren 2ko 771985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D.Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuaz.

ALKATEAK ERABAKI DU

Bat.- Jose Antonio Garmendia Jaunak, Artzai gazta elkarteraen izenean luzatu duen laguntza kopurua , udal honetarako handiegia denez, 300 euroko laguntza ematea onartu du .

Bi.-Orendaingo udala, Enirio Aralar mankomunitateko kide izanik , bertara ere laguntza eskaera bideratzeko proopsamena luzatzen dizu.

Hiru .- Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.

Lau .- Hurrengo bilkuran erabakiaren berri ematea.

2016-14:M.J REN LIZENTZI ESKAERA

Martin Jauregi Garmendiak, bere baserriko beheko solairuan hainbta berrikuntza egin nahi dituela eta aurrekontua eta plana bat aurkezten ditu.

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Egin nahi diren lanak dira:

- .-behe solairuko zati bat egurrezkoa dena gaizki dagoela eta ordezkatzea.
- .- behe solairua erabilgarriagoa izateko balkoia bat, bizilagunen berdina edo antzekoa egitea, planoan ikusi bezala, gaur eguneko lehioak ate bihurtuz.

Apirilaren 2ko 771985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D.Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuaz.

ALKATEAK ERABAKI DU

Bat.-Martin Jauregi Garmendiari obrak burutzeko baimena onartzea.

Bi.-Udal Agintarauen arabera, Eraikuntza eta Obra zerga likidazioa ordaintzea.

Hiru .- Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.

Lau .- Hurrengo bilkuran erabakiaren berri ematea.

2016-15:LARGARATE TXIKIKO LIZENTZIA

Larraspi baserriko jabeak, Largarate txiki baserrian hainbat berrikuntza egin nahi dituela eta aurrekontua aurkezten du.

Egin nahi diren lanak dira:

- .- Baserri barruko berrikuntzak, sukaldea, bainugela ko ormak eta tetxua berritu.
- .- Iturgintza lanak , komoneko elementuak berriak jarriaz.
- .- Leihoak ordezkatzea .

Lanen aurrekontua , 4058,50 euro dira.

Apirilaren 2ko 771985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D.Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuaz.

ALKATEAK ERABAKI DU

Bat.-Largarate txikiko jabeari obrak burutzeko baimena onartzea.

Bi.-Udal Agintarauen arabera, Eraikuntza eta Obra zerga likidazioa ordaintzea.

Hiru .- Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Lau .- Hurrengo bilkuran erabakiaren berri ematea.

2016-16: A. ETA J. Z LIZENTZI ESKAERA

Jon eta Aloña Zuriarrain jaun andreak, bere etxean teilatua eraberritzeko baimen eskaera ahoz egiten dute, aurrekotnua aurkeztuaz.

Egin nahi diren lanak dira:

.-teila kendu eta teila berria jartzea.

Lanen aurrekontua, 11.800,00 euro dira.

Apirilaren 2ko 771985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D.Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuaz.

ALKATEAK ERABAKI DU

Bat.-Jon eta Aloña Zuriarrain jaun andreari obrak burutzeko baimena onartzea.

Bi.-Udal Agintarauen arabera, Eraikuntza eta Obra zerga likidazioa ordaintzea.

Hiru .- Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.

Lau .- Hurrengo bilkuran erabakiaren berri ematea.

2016-17: ZUNTZ OPTIKOAREN ESLEIPEN BIRMOLDAKETA

Lehena .-Kontutan hartuaz ,

Bi mila eta hamaseiko azaroaren 5 eko osoko Bilkuran, Zuntz optikoaren proiektuaren onarpena emateaz gain, lanen esleipena egin zen, ondoren jasozten den erara:

“9.- ZUNTZ OPTIKOA PROIEKTUA GAUZATZEKO LANEN ESLEIPENA ONARTZEA.

Orendaingo hirigunera zuntz optikoa ekartzeko lanak burutu nahi ziren eta lan hauek burutzen zuten enpresa gutxi ezagutzen badira ere, inguruko bi enpresarekin harremanetan jarri zen, lanen zehaztasunak eta balioak jakiteko.

Enpresak egindako eskaintzak hauek izan dira:

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Kontzeptua	Beristain	Aizkorpe
Guifi sistemarako lotura	17.045,00€	20.545,00€
Orendainen zuntza jartzea, Sarean , koadro elektrikoa e.a.	20.498,33€	17.615,76€
GUZTIRA	37.543,33€	38.160,76€

Zuntza ekartzeko lanaren gain, lur mugimendu, zanja , hodi sartu eta beste zenbait lan ere burutu behar direla aurreikusi da, eta lan horiek udalak bertako material eta giza baliabideekin egitea aurreikusten da eta beharrezkoak direnen makinak kontratatu egingo ditu.

Beraz , Udalak egin duen, bataz besteko, lan guztiaren balorazioa ondorengo da.

1.- Foru Aldundiak egindako obra zibilaz gain , geratzen diren bi puntuen lotura egiteko zanga egin eta hodia sartzeara.....3.260,00€

2.-Orendaingo udaletik hasi eta N-1 puntuan dagoen zuntz optiko lotura egiteko zuntza sartzeara , bataz beste 3.000metro lineal..... 19.750,00€

3.-Rack armairua udaletxeko teilatupean jartzea eta eta sare elektronikoa koadroa gauzatzeara..... 2.700,00€

4.-Udaletxeko teilatupean , armairua kokatzeko lokala prestatzeara...780,00 €

5.-Sare elektronikoa13.075,00€

6.-Loturak eta konexioak5.300,00€

7.-Lan koordinazioa3.100,00 €

OINARRIA47.965,00 €

Beza %2110.072,65 €

GUZTIRA58.037,65 €

Eta, bi enpresak eskainitako unitate prezioak kontutan hartuta, lan hauek exekuzioa, BERISTAIN S.L enpresari esleitzea erabaki zen bertan agertutako unitate prezioetan.”

Bigarrena.-Kontutan hartuaz ,

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Proiektuaren exekuzio denboraldian, azterketa berriak egin eta moldaketa berri bat egin dela, ondoren esaten diren unitateak exekutatu behar direlarik:

Rack jartzea	3.027,64 €
Hiriguneko zuntz optikoa jartzea.....	8.498,50 €
Wifi sarea lur ez urbanizagarrian	23.000,00 €
Proiektuaren erredakzioa	3.250,00 €
Wifi puntua herrigunean	2.000,00 €
Guztira	39.776,14€
Beza	8.352,99 €
GUZTIRA	48.129,13 €

Hirugarrena.-Kontutan hartuaz .

Obraren zati bat egin dagoela eta horren gauzatzea Beristain S.Lk egin duela, 18.031,66 eurotan.

Laugarrena.- Kontutan hartuaz,

Haseran diseinatu zen proiektua gauzatze lanak Beristain S.L.ri esleitu zitzaizkiola. Baina, proiektuaren diseinuan, hainbat arrazoiengatik aldaketa bat egin behar izan dela, eta Beristain S.L. ren adostasunarekin, alderdi guztien egindako bileraren ostean, proiektua gauzatzeko geratzen diren lanak era honetara banatzea hitzartu zela:

Rack jartzea	3.027,64 €...	Beristainek gauzatuko du.
Hiriguneko zuntz optikoa jartzea...	8.498,50 € ...	Beristainek gauzatuko du.
Wifi sarea lur ez urbanizagarrian	3.000,00 €.....	Talaia enpresak gauzatuko du.
Proiektuaren erredakzioa	3.250,00 €.....	Talaia enpresak gauzatuko du.
Wifi puntua herrigunean	2.000,00 €.....	Talaia enpresak gauzatuko du.

Apirilaren 2ko 771985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D.Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuaz.

ALKATEAK ERABAKI DU

Bat.- Zuntz optikoaren birmoldaketa lanei onarpena ematea.

Bi.- Rack jartzea 3.027,64 € eta Hiriguneko zuntz optikoa jartzea 8.498,50€, beza kanpo, Beristain S.L. ri esleitzea, elkarrekin hitzartu bezala.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Hiru .- Wifi sarea lur ez urbanizagarrian 23.000,00 €,Proiektuaren erredakzioa 3.250,00€ eta Wifi puntua herrigunean 2.000,00 € beza kanpo Talaia enpresari esleitzea, elkarrekin hitzartu bezala.

Lau .- Hurrengo bilkuran erabakiaren berri ematea, eta esleituei ere jakinaraztea .

12.-2016/01 KREDITU ALDAKETA ONARTZEA

2016/01eko ekitaldiko aurrekontuaren gain bigarrenko kreditu aldaketa egitea proposatu da, ondoren azaltzen den xehetasunarekin

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.481.922.00.02 2016	Euskal fondoa	0,00	2.000,00	2.000,00
1 0000.602.450.00.01 2016	Bestelako proiektuak	27.137,26	41.400,00	68.537,26
1 0000.422.943.00.01	Beste entitateei: IKT	1.500,00	172,50	1.672,50

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

2016				
1 0000.434.231.30.01 2016	Familiak. Gizarte Larrialdia	0,00	350,00	350,00
1 0000.480.231.30.01 2016	Etxez etxeko laguntza	20.000,00	312,70	20.312,70
1 0000.131.153.40.01 2016	Behin behineko lang. Obretako bridaga	4.000,00	10.705,74	14.705,74
1 0000.211.153.30.01 2016	eraikuntzen konponketa. Hiri altzariak	500,00	5.500,00	6.000,00
1 0000.227.151.00.07 2016	estudio eta lan teknikoak. arkitektoa	3.000,00	3.000,00	6.000,00
1 0000.221.412.00.01 2016	Elektrizitatea. Zaingo bonba	2.000,00	216,09	2.216,09
1 0000.231.912.00.01 2016	Goi karguen dietak eta lokomozioa	5.000,00	1.000,00	6.000,00
1 0000.434.231.90.01 2016	lukrorik gabeko erakundeak: 3. adinek.	3.000,00	3.000,00	6.000,00
1 0000.431.431.40.01 2016	Tolosako Hiltegi Mankomunatua	80,00	13,00	93,00
1 0000.602.920.00.01	Mapa munizipala	6.000,00	2.000,00	8.000,00

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

2016				
1 0000.211.323.00.01 2016	eraikuntzen konponketa. Haurreskola	700,00	1.429,15	2.129,15
1 0000.224.912.00.99 2016	Bestelako arrisk. Istripua, zinegotziak	300,00	30,99	330,99
1 0000.620.414.00.01 2016	ZUNTZ OPTIKOA	0,00	8.129,80	8.129,80
1 0000.212.933.00.01 2016	Ostatuko alarma eta kama	0,00	1.061,32	1.061,32
1 0000.211.920.00.01 2016	Eraikuntza konponketa. Udaletxea	300,00	3.089,39	3.389,39
GUZTIRA		73.517,26	83.410,68	156.927,94

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 0000.702.000.00.02 2016	Aldundiak. Proiektu bereziak	21.199,92
c	2 0000.705.000.00.04 2016	EREIN	34.822,59
c	2 0000.705.342.00.01 2016	ALDUNDIA, KIROLA	10.567,50
a	2 0000.870.000.00.01 2016	Gerakinak	16.820,67

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

FINANTZAKETA GUZTIRA	83.410,68
-----------------------------	------------------

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren akordioa, 2014ko azaroaren 18koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: Kreditu aldaketaren onarpena

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1- ENTITATE ZERRENDA:

ORENDAIN

2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Kredituen aldaketa espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek 1.826,98 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Orendaingo Udala. Errosario plaza z.g. 20269 Orendain (Gipuzkoa)

Tel.: 943.654064 – Fax: 943.654064

e-maila: udala@orendain.eus



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

2016rako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren 2016rako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2016ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2015an likidatutako sarrera arrunten % 34,97 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2015ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016ko aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2016rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2016rako ezarritako helburua magnitude hori % 80,00 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2016rako helburua.

Gastuaren araua

2015ko eta 2016ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 4,43 da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	2015ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	348.050,65
a2	SEC doiketak ¹	0,00
a3	2015ko interesak	1.833,54
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2015an	109.625,57
a=a1+a2-a3-a4	2015ko gastu konputagarria	236.591,54
b1	2016ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	360.115,29
b2	SEC doiketak ²	0,00
b3	2016ko interesak	1.600,00
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2016an	111.440,27
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketan eragina	0,00
b=b1+b2-b3- b4-b5	2016ko gastu konputagarria	247.075,02
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)	% 4,43

2016rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa % 1,80 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2016rako gastuaren araua.

3- ONDORIOAK

Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2016rako ezarritako helburuak edota gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

¹ Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.

² Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

Eta argi eta garbi ikusten da Kreditu gehigarrien espediente honek ez duela Udal honen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.

Orendainen, 2016ko urriaren 19an.

KONTUHARTZAILEAK

2016/01 kreditu aldaketaren aurrean **erabaki da:**

- 1.- 2016/01 Kredituen aldaketa haserako izaeraz onartzea.
- 2.- Udal Erregimenari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legeko 112.3 artikuluan, Udal Entitateen Aurrekontuari buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Araueko 15.1 artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekonturen Araudia onartzen duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuko 19.1 artikuluan ezarritakoa betez hamabost eguneko epean jendeari ezagutzera ematea.

13.-GALDERAK ETA ESKAERAK.

Ez da galdera eta eskerarik aurkeztu.

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen alkateak.

Alkateak

Idazkariak